## GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEA

Honen bidez jakinarazten dizut aldatu egin dela Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak martxoaren 24an (asteazkena), 16:00ean, Eusko Legebiltzarreko 3. aretoan egin beharreko bilkurako gai-zerrenda. Hauxe izango da

### GAI ZERRENDA

1. 2010eko martxoaren 10ean egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.

2. Mugarik Gabe erakundearen agerraldia, erakundearen eskaerarekin bat etorri eta batzordeak eskaturik, informazioa emateko giza eskubideei dagokienez Bolivian eta Kolonbian duten egoerari buruz eta herrialde horietako herri indigenek egiten dituzten proposamenei buruz. [09\10\06\03\0161]

3. Emakume Guatemalarren Batasun Nazionaleko presidentea agerraldia, Aitor Casado Figueroa Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak egindako eskariari jarraituz batzordeak eskatuta, azaltzeko zer-nolako ondorioak atera diren Guatemalako gatazka armatuan emakumeek jasandako indarkeria sexualaren kontra eratu zen kontzientziako epaitegiari buruz elkarteak egindako lanetatik. [09\10\06\03\0185]

4. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularrak, Mistoa-EA, Mistoa-EB eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeek aurkeztutako legez besteko proposamena, herritarren eskaerentzako lantalde iraunkor bat sortzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0252]

5. Eskariak eta galderak.

## COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y SOLICITUDES CIUDADANAS

Pongo en su conocimiento que se altera el orden del día de la sesión a celebrar por la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas el día 24 de marzo, miércoles, a las 16:00, en la sede del Parlamento Vasco (sala 3), quedando el siguiente

### ORDEN DEL DÍA

1. Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 10 de marzo de 2010.

2. Comparecencia de la organización Mugarik Gabe a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por dicha organización, para informar sobre la situación de los derechos humanos en Bolivia y Colombia y sobre las propuestas de los pueblos indígenas de ambos países. [09\10\06\03\0161]

3. Comparecencia de la presidenta de la Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D. Aitor Casado Figueroa, parlamentario del grupo Socialistas Vascos, para presentar las conclusiones de los trabajos de la asociación en torno al tribunal de conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala. [09\10\06\03\0185]

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Popular Vasco, Aralar, Mixto-EA, Mixto-EB y Mixto-UPyD de creación de una ponencia permanente de solicitudes ciudadanas. [09\11\02\01\0252]

5. Ruegos y preguntas.

Eusko Legebiltzarra, 2010eko martxoaren 23a

Parlamento Vasco, 23 de marzo de 2010

Andoni Iturbe Mach
Legelaria / Letrado

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA - ENTRADA
2010 MAR. 16
Nº 8212 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

**Aitor Casado Figueroa**, Parlamentario del Grupo *Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak*, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, tiene el honor de SOLICITAR LA COMPARECENCIA de Maya Alvarado, Presidenta de la Unión Nacional de mujeres Guatemaltecas, ante la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, con el fin de dar a conocer las conclusiones de sus trabajos en torno al Tribunal de Conciencia contra la violencia Sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala

JUSTIFICACIÓN

Los días 22, 23 y 24 de Marzo de 2010, La Dirección de Cooperación al Desarrollo del Gobierno Vasco junto con el Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao, han organizado unas Jornadas de trabajo y debate sobre Estrategias positivas de Desarrollo, bajo el título “Derechos Sexuales y Derechos Reproductivos: el cuerpo de las mujeres como espacio de empoderamiento”.

Una de las profesionales invitadas es la Señora Maya Alvarado presidenta de la Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas, organización feminista y autónoma, conformada por mujeres comprometidas con la transformación social, política y cultural de Guatemala cuya misión es contribuir a la transformación de las relaciones desiguales entre hombre y mujeres, en los ámbitos públicos y privados, a la democratización, la justicia social y el respeto a los derechos de los pueblos indígenas.

Uno de los trabajos que actualmente se están desarrollando desde esta asociación es dar a conocer las conclusiones del Tribunal de Conciencia para mujeres sobrevivientes de violencia sexual durante el conflicto armado de Guatemala, temática sobre la que va a versar su intervención en las Jornadas.

Dada la importancia de las cuestiones planteadas, es por lo que presentamos esta Solicitud de Comparecencia.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de Marzo de 2010

José Antonio Pastor
Portavoz

Aitor Casado Figueroa
Parlamentario

***De creación de una ponencia permanente de solicitudes ciudadanas*** (Admisión a trámite) (09/11.02.01.0252)

La Mesa, en su reunión del día 23 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Popular Vasco, Aralar, Mixto-Eusko Alkartasuna, Mixto-Ezker Batua Berdeak y Mixto-UPyD, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Los grupos parlamentarios abajo firmantes, a tenor de lo establecido en el Reglamento de la Cámara actualmente en vigor, tienen el honor de presentar para su debate en la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco la siguiente proposición no de ley, de creación de una ponencia permanente de solicitudes ciudadanas.

Justificación:

La Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, reguladora del Derecho de Petición, en su disposición adicional primera, indica que las peticiones dirigidas a las asambleas legislativas se tramitarán de conformidad con lo establecido en sus respectivos reglamentos, debiendo quedar recogida en todo caso la posibilidad de convocar en audiencia especial a los peticionarios, y siendo las decisiones que se adopten por las cámaras recurribles en amparo ante el Tribunal Constitucional.

No obstante, al existir una comisión permanente específica que tiene atribuida esta función, la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, que es la encargada de la tramitación de las peticiones dirigidas a la Cámara, en un intento loable de agilizar y dar una pronta respuesta a las peticiones que los ciudadanos y ciudadanas pudieran realizar.

Sin embargo, las dificultades para la correcta tramitación de las peticiones y solicitudes ciudadanas, que en muchos de sus casos pueden afectar al derecho a la intimidad de los peticionarios, aconsejan que su tramitación se realice en un ámbito más reducido y alejado de la publicidad que una comisión supone.

***Herritarren eskaerentzako lantalde iraunkor bat sortzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea) (09/11.02.01.0252)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 23ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularra, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna, Mistoa-Ezker Batua Berdeak eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeek egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Hau sinatzen duten legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean egun indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten dute, herritarren eskaerentzako lantalde iraunkor bat sortzeari buruz, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordean eztabaidatu dadin.

Arrazoiak:

Eskaera-eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege organikoak, bere lehen xedapen gehigarrian, xedatzen du legebiltzarrei egindako eskaerak legebiltzar horien erregelamenduetan ezarritakoaren arabera tramitatuko direla, betiere eskaera-egileei entzuna izateko aukera emanez, eta legebiltzarrek hartutako erabakien aurkako babes-errekurtsoak aurkeztu ahal izango direla Konstituzio Auzitegiaren aurrean.

Hala ere, funtzio hori betetzen duen batzorde bat badagoenez, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordea hain zuzen ere, batzorde horrek du Legebiltzarrera zuzendutako eskaerak tramitatzeko ardura. Hori dela-eta, laudagarria da batzorde horren bidez tramitazioa arindu nahi izatea, hiritarrek egin ditzaketen eskaerei lehenbailehen erantzuteko.

Hala ere, badira hiritarren eskaerak era egokian tramitatzeko zailtasunak, eskatzailearen intimitaterako eskubidea urra baitaiteke. Hori dela-eta komenigarria da tramitazioa gune murriztuago batean egitea, batzorde batek duen publizitatetik kanpo.

Por todo ello el Parlamento Vasco, acuerda:

1. La constitución de una ponencia permanente de solicitudes ciudadanas en el seno de la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas.

2. La ponencia permanente estará constituida por un miembro de cada grupo parlamentario y actuará con competencias delegadas de la comisión.

3. La ponencia, con funciones delegadas de la comisión, sería la encargada de la tramitación de las peticiones individuales o colectivas que reciba el Parlamento.

En Vitoria, a 18 de febrero de 2010

**Grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Popular Vasco, Aralar, Mixto-Eusko Alkartasuna, Mixto-Ezker Batua Berdeak y Mixto-UPyD**

***

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak erabaki du

1. Herritarren eskaerentzako lantalde iraunkor bat sor dadila Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen barruan.

2. Legebiltzar-talde bakoitzeko kide batek osatuko du lantalde iraunkorra eta batzordeak eskuordetutako eskuduntzez jardungo da.

3. Lantaldeak, batzordeak eskuordetutako eskumenekin, Legebiltzarrak jasotako banakako nahiz taldeko eskaerak tramitatzeko ardura izango du.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 18an

**Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularra, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna, Mistoa-Ezker Batua Berdeak eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak**

***